2416/2026 EBAZPENA, azaroaren 17koa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena. Horren bidez, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean, Zaldibarko Ospitaleko Zerbitzu Sanitarioko buruaren lanpostu bat betetzeko deialdian onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen da.

AURREKARIAK

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearen maiatzaren 15eko 1350/2026 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean, Zaldibarko Ospitaleko Zerbitzu Sanitarioko buru lanpostua lehiaketa bidez betetzeko (EHAA, 195 zk., 2026ko urriaren 13koa, eta BOE, 262 zk., 2026ko urriaren 22koa).

Deialdian ezarritakoarekin bat etorriz, 15 egun balioduneko epea ezarri zen eskabideak aurkezteko, deialdiaren ebazpena zegokien aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratuko zen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta epe hori 2026ko azaroaren 12an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaituta, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen zerrenda onartzeko, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko aginduko du, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko da, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak administrazio-bidean aurkezteko.

Horrenbestez, pertsonaleko alorrean indarrean dagoen legediak ematen dizkidan eskumenez baliaturik, eta Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen 15.1 e) artikuluari jarraikiz (255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, EHAA, 219. zk., azaroaren 14koa), lehiaketaren arauak betetzeko,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Onestea Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean, Zaldibarko Ospitaleko Zerbitzu Sanitarioko buru lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda (I. eranskina).

Bigarrena.- Ebazpen hau argitaratzea Osakidetzako webgunean.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Zuzendaritza Gerentziari, 10 egun balioduneko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2026ko azaroaren 17an

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Zuzendari Gerentearena
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko ekonomiako eta finantzako zuzendaria
(1728/2026, uztailaren 6ko Ebazpena)

Osakidetza

Izpta./Fdo.: Juan Luis LAPUENTE TRONCOSO
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea
Red de Salud Mental de Bizkaia

I. ERANSKINA

BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA. ZALDIBARKO OSPITALEKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK

Onartuak:

Beatriz Rodríguez Paz andrea

Baztertuak:

Inor ez